

DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 240. zkia. 2015eko abendua



**Atzo eta gaur,
ermuarrak eta
mallabitarrak kirolari**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **Eta twitterren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Paul Bustindui, Pablo Cano,
Aitor Hernández eta Dorleta
Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Eneritz Ibarzabal, Patxi
López, Valentín Mugarza,
Tamara del Olmo, Ana
Ugarte eta Edorta Unamuno.

ARGAZKIAK:

Paul Bustindui, Pablo Cano,
Iñigo Erauskin, Estibalitz
González, Eneritz Ibarzabal,
Valentín Mugarza eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Ainitze Antxia, Nora Mateos
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko ugaztunak

...Gure baserriarren ahotik

LEPAZURIA *Garduña Martes foina*

Ikusmen, entzumen eta usaimen bikaina du katuaren neurrikoa den mustelido honek. Gatxa da baina bera ikustea, bakarzalea izateaz gain, gauzez egiten duelako bizimodua; ikustekotan, saltoka erreparatuko duzu, leku batetik bestera doala. Ugaztun txikiak dira bere dietaren oinarri: satorrak, lursaguak, satitsuak, basasaguak... nahiz eta muzinik egin ez intsektu, untxi, igel, sugandila, basa-fruitu edota eztiari. Bere burua ezkutatzen du arbola-zuloetan, egur-meten artean, baserrien sabai eta ganbaretan eta noiz edo noiz kotxeen kapopean, motor barruko epelta-sunaren bila itxuria.

Argindarraren kableak ere karraskatzen du, gustuko ohitura du, gustuko jatekoaren bila, denetik probatu behar delako-edo. Mizkinkeria arrastorik gabe, bai jauna!



Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4 Juan Carlos Pommier (Bolivia)	BOTEPRONTOAN.....16- Mari Feli Aranburu
ELKARRIZKETA5-7 Pablo Cano, boxeolarien prestatzaile ohia	ERMUAN ZER?17 Ainhoa Zuazua sopranoa
MALLABIAN ZER?8-9 Itsaso Pradera, nesken paleta eskolako arduraduna	IRITZIA18 "Dendariak gara, eta bizilagunak ere"
ESKOLEN TXOKOA10 Mallabiko eskolako berriak	SALEROSKETAK19 Saldu, erosi edo agurtu
GABONETAKO EROSKETA GIDA.....12-13	ANTZINAKOAK.....20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN.....14-15 Agur Juan Carlos Colinari	KALEKO INKESTA21 Zer opari jaso nahiko zenuke?
	AGENDA22 Urtarrileko agenda

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Juan Carlos Pommier

Cochabamban jaio zen Juan Carlos duela 64 urte, eta Santa Cruzen hazi zen. Gaztetan, denboralditxo eman zuen Estatu Batuetan, baina azken zazpi urteotan Ermua du bizileku, hona etorri baitzen bere bi semeei eta bilobei jarraituta. Gaur egun gaztagilea da.

- Bolivian ikasi zenuen gazta egiten?

Historia luzea da. 1968tik 1971era La Sallen ikasten nuen bitartean, nire gurasoak hil egin ziren hegazkin-istripu batean. Ez neukan norekin geratu hirian, eta barnetegi batera eraman ninduten, Don Bosco Salesianoetara. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Teknikari ikasketak burutu nituen bertan, eta tartean gazta egiten ikasi nuen. Baina ikasketek beste adar bat ere bazuten, nekazari-mekanika adarra, eta hori gustatu zitzaidan. Bukatutakoan, Estatu Batuetara joan nintzen; soldadura eta mekanika ikasi nuen, eta motorren afinazioan espezializatu nintzen. Santa Cruzera bueltan, tailer bat zabaldu nuen, 'La clínica del carburador', oso ezaguna egin zena.

- Eta bat-batean Bolivia uztea erabaki zenuen...

Ezkondu egin nintzen umetatik ezagutzen nuen emakumearekin, Soniarekin, eta bi seme izan genituen. Batek Suitzan ikasteko beka lortu zuen eta beste Bartzelonara etorri zen medikuntzako espezializazioa egitera. Semeek alde egin zutenean, emaztearekin pentsatu nuen: edo Estatu Batuetara bueltatzen



naiz edo semeekin hona nator. Familia edo dirua, zer da garrantzitsuagoa? Familiak irabazi zuen, jakina.

- Erraz topatu zenuen lana?

Ez, krisiarekin batera heldu ginen Ermura. Zenbat ikastaro egin nituen han eta hemen! Zenbat industrialde bisitatu nituen! Zenbat enpresatan utzi nuen curriculum! Urtebetez egin nuen lana eta jarraian arazo bat izan nuen hestegorrian. Baserritik jatea gomendatu zidan medikuak, eta esnea eta esnekiak oso gustuko nituen, merkatu plazara joaten hasi nintzen. Rosario Garitagoitia ezagutu, esnea erosi eta etxean gazta egiten hasi nintzen. Ingurukoei asko gustatzen zitzaien nire gazta eta Rosarioren bitartez Ruben Markina esne-ekoizlea ezagutu nuen. Hartu-emanen hasi ginen eta gaur egun gaztagile nabil bere baserrian.

- Orain oso gustura zaude, baina aldaketa erraza izan zen?

Aldaketa handia izan zen, baina oso

ondo hartu gintuzten: José Egidok eta bere familiak, San Pelayo eskolako Ana Saínzek eta Pedro Piñónek, elizako Aitor apaizak, Gizarte Zerbitzuetako Ane Enzunak eta Ruth Díezek, Enplegu Sailak...

- Zer botatzen duzu faltan?

Familia, lagunak eta lagunarteko elkarrekin gastronomikoa.

- Hona etorrita, galdu edo irabazi duzula esango zenuke?

Irabazi. Esperientzia irabazi dut, bizi-modu ezberdinak ezagutu ditut, ohitura berriak eta harreman mota berriak. Euskalduna pertsona itxia da, ez da asko nabarmentzen, ez du bere bizitzaz azalpen handirik ematen... Horregatik uste dut nire izaera asko gustatzen zaiola hemengo jendeari, oso irekia eta zintzoa naizelako. Rubeni ere gustatu zitzaion, eta laguna dut, konfiantzazkoa da. Oso pertsona jatorra da, bere emaztea, eta alabatxoak ere.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Pablo Cano, boxeolarien prestatzaile eta teknikari ohia:

“Boxeoan teknika alde batera geratu da, lehenbailehen noketzea da gakoa”


Pablo Canok hamazazpi urterekin erosi zituen boxeo eskularruak, hilabeteko paga aurreztu eta gero. Urte berean, 1965ean, Zornotzan debutatu behar zuen 67 kg-ko ermuar honek, wélter pisuan. Baina bere debuta bertan behera geratu zen, prestatzaile izateko eskaintza jaso baitzuen. Momentu horretan ekin zion prestatzaile ibilbideari eta 6 urtez jardun zuen eskularru hotsean. Denbora gutxian bere lanak errekonozimendua jaso zuen: 1970ean Euskal Herriko eta Nafarroako prestatzaile onenaren saria eman zioten. Gaur egun ez du boxeo jarraitzen, eta ez da damutzen hura laga izateaz. Hala ere, garai horietako hamaika anekdota gogoratu ditzake pozarren, sekula aitortuko ez dituen sekretuak isilpean gordeko dituen bitartean.

- Nola hasi zinen boxeoa?

Enpesa batean egiten nuen lana Juan Domarcorekin batera. Bera Durangon aritzen zen boxeolari amateur gisa, eta eskularru berriak erosi zituenean, niri saldu zizkidan aurrekoak. Amak 25 pezetako paga ematen zidan astean, eta hilabete egon nintzen aurrezten, etxetik irten gabe. Beti ibili izan naiz gimnasioetan, kirola oso gustuko izan dudalako, eta Domarcorekin batera Elgoibarko Ego-Toki Atletismo Klubera joan nintzen. Domarco Kanadara joan zen hurrengo urtean eta ez dut bere berri sekula izan.

- Ego-Tokin eman zenituen lehen urratsak, beraz?

Bai, gimnasioan Vázquez izeneko prestatzailea zegoen, baina Alemaniara alde egin zuen lan egitera eta kloba prestatzaile barik geratu zen. Niri eskaini zidaten gimnasioaren ardura hartzea eta baietza eman nuen. Orduan "Kiko" García Herrera etorri zen gurera. Zegoeneko profesionala zen, Miguel Almanzor prestatzailearekin ibilitakoa Donostian -gerora José Manuel Ibar "Urtain"en prestatzailea izango zena-. Baina ez zuten harreman ona eta, Elgoibarren gimnasio bat zegoela jakinda, nirekin etorri zen "Kiko". Berak Almanzorren teknika guztiak erakutsi zizkidan, eta hor trebatu nintzen ni.



Pablo Cano ezkerrean, Kiko García Herreerari eskularruak lotzen.

- Debutatzeko prest zeunden orduan. Ez boxeatzeren penarekin geratu zinen?

Ez, pozik hartu nuen prestatzaile lana. Gehiago kobratzen nuen eta zaplastekorik jaso barik! 1968-1969 urteen bueltan, amateur batek 75 pezeta kobratzen zituen borroka bakoitzeko, nik 150.

- Zeintzuk ziren zure ikasleak?

José Pérez Cid "El tigre de Amaña"ri nik erakutsi nion boxeatzeko eta Europako bi txapelketan parte hartu zuen Antonio Sáez "Andoni Amaña" eibartarrari ere, esaterako. Horrek Ermuan borrokatu zuen lehen aldiz, Batzokian. Gero Espainiako

txapeliduna izan zen amateurretan eta profesionalatan, Montrealeko Joko Olimpikoetan ibili zen, Mediterraneoko Jokoetan....

- Nola prestatzen da boxeolari bat?

Prestaketak bi alde ditu, fisikoa eta teknikoa. Lehenik eta behin, atleta egin behar da. Urtain fenomeno agertu zenean, gazte denek boxeatu nahi zuten: lau gauzatxo ikasi eta borrokan hasi. Baina ez. Hasteko urtebete eman behar zuten gimnasioan, eta gero, gustukoa bazuten, boxearen teknika ikasten hasten ginen. Boxeatzailerik amateur bat egiteko bi urte inguru behar dira. Izaera kontuak ere daude tartean: serioak izan behar dute, ez erre, ez edan, ordutegiak errespetatu...

- Elgoibarren bakarrik aritu zinen?

Ez, hortik Bizkaiko Boxeo Federazioara egin nuen jauzi,

federatu egin nintzen eta duela gutxi zendu den Pedro Oyarbide Berastegirekin lan egin nuen. Ring prestatzaile moduan, Europako bost onenen artean zegoen Oyarbide, eta ni bigarren prestatzaile gisa ibiltzen nintzen berarekin, amateurretan eta profesionalatan. Amateurretan ni bakarrik ere aritzen nintzen, nik prestatutako boxeolariak baziren.

- Zein zen zure lana borroka egunean?

Profesionalatan Oyarbide-ri laguntzen nion. Ni bakarrik banindoa, berriz, dena egin behar nuen: eskularruak eta bendak ipini, base-lina eman, borroka zuzendu, zer egin behar zuten esan, zer ez...

- Oyarbidek punta-puntako boxeolariak zuzentzen zituen, ezta?

Bai. Renzo Casadei italiarrak Urtain, Pedro Carrasco, Casimiro Martínez eta José

"Prestatzaileok gehiago kobratzen genuen zaplastekorik jaso gabe!"



Drogetenituri, 240 zkia.



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

 www.zermik.com
 Usatxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12

Legrá eramaten zituen. Kontua da Espainiako Federazioak bi urteko zigorra ezarri ziola Casadeiri, eta bere boxeolariak lehiatu behar zutenean, Oyarbidek zuzentzen zituen. Eta nik, jakina, haren laguntzaile moduan. Munduko txapelduna izan zen Pepe Legrárekin, adibidez, bakarrik irten nintzen behin Bilboko zezen plazan, David Pesenti frantsesaren kontra. "Peppermint" Frazer panamarrarekin ere Bilbon egon nintzen. Bilboko lehia hura irabazi zuen "Peppermint"-ek eta hurrengo hilean munduko titulua eskuratu zuen Buenos Aireseko Luna Park estadioan,

Nicolino Locche argentinarri irabazi eta gero.

- Estatu mailan ere, garaiko onenekin ibiltzen zinen...

Bai, Jose Mari Madrazo Espainiako txapelduna izan zen, Mariano "Marianín" García titulu bera lortu zuen 12 bider, Fabian Bellancok 9 edo 10 aldiz, Ángel Mechese 17 urterekin eskuratu zuen titulu hura eta Agustín Senín Europako txapelduna izan zen 3 bider. Urtaşun prestatu nuen, Lorenzo Bereziartua, Isidro Barayazarra, Pardo, Recio, Antolín Caballero, Barreiros...

- Eta lan guzti horrek saria jaso zuen, Euskal Herriko eta Nafarroako presta-

"Ermuan boxeo bultzatzea proposatu zidaten duela 30 urte, baina ezetz esan nien"

tzaille onenaren saria jaso baitzenuen 1970. urtean, amateurren kategorian.

Sekulakoa izan zen, kopa hori jasotzeak ilusio handia egin zidan.

- Boxeoan, amore emateko, eskuoihala ringera botatzen da. Sekula egin behar izan duzu?

Ez, ez da beharrezkoa. Arbitroa guztiaz ohartzen da eta batzuetan lagundu ere egiten dizu.

- Ematen duen bezain kirol gogorra da boxeo?

Bai, fisikoki zigortzen zaitu. Baina boxeolariak ez ziren batera agresiboak, oso jatorrak ziren, umetxoak bezala, asko ikusi nituen negar egiten.

- Nor zen zure idoloa?

Carlos "Macho" Monzón eta Nicolino Locche, eurak ziren onenetan onenak.

- Damutu egin zara sekula entrenatzeari utzi izanaz?

Ez, amaieran nahiko saturatuta nengoen. Lan handia egin behar zen egunero-egunero eta gogorra zen. Gero neskalaguna aurkitu nuen,

ezkondu behar nintzen... Utzi eta gero, duela 30 urte inguru, Bizkaiko Federazioan zegoen Pedro Oyarbidek proposatu zidan, Andoni Amañaren bitartez, Ermuan boxeo bultzatzea. Gimnasioa ipiniko zidaten eta 30.000 pezeta ordainduko zizkidaten hilero, baina ezetz esan nien.

- Gaur egun boxeo gustuko duzu?

Ez, ETBko borrokak ikusten ditut noizbehinka, baina ez dut larregi jarraitzen.

- Boxeo aldatu egin da?

Bai, lehen baino agresibagoa da. Nire garaian tanteo gehiago egiten zen, lehen asaltoan aurkaria aztertu, teknika landu... Orain estiloa alde batera utzi da eta kolpeak agintzen du. Kontua da zeinek nokeatzen duen lehena. Afizio gutxi dago gainera, 80. hamarkada hasieran boxeo ia debekatu zelako hemen. Orain indarra hartzen ari da berriro ere: gimnasioak badaude, baina ez dago borrokarik, beraz idolorik ez, afiziorik ez.

Dorleta Vidal



Ezkerrean José Pérez Cid "El tigre de Amaña", eskuman Kiko García Herrera eta erdian, Pablo Cano.

es
egolek
electrizitatea
iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

AMAIA
HARATEGIA



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

MALLA
ileapaindegia
Probaleku 8, behea
© 943 17 18 50



Itsaso Pradera, nesken paleta eskolako arduraduna:

“Gero eta emakume gehiago daude frontoietan”

Itsaso Praderari familiatik dator kio frontoiarenganako harremana. 2007, 2009 eta 2010 urteetan munduko txapelduna izan zen paletan gomaz. Pilotan maila gorenean ibili ondoren, gaur egun, kiroldegia kudeatzeaz gain, nesken paleta eskolako arduraduna da.

- **Noiz hasi zen herriko nesken pala eskola?**

2008ko irailean hasi zen.

- **Zenbat neska daude gaur egun bertan?**

16 eskolarretan eta 5 federatu.

- **Betidanik izan du hain harrera ona herriko gazteen artean?**

Bai, lehen hamar-hamabost ziren, eta orain hogetik gora dira guztira. Beraz, gehiago daude orain baina beti egon dira nahiko neska. Urtetik urtera kopuruak gora egin du. Lehenengo urte horretan joan ginen eskolara hurrei eskaintzaren berri ematera eta ume asko apuntatu ziren. Hasieran apuntatu zirenak orain jarraitzen dute eta txikiak ere apuntatzen doaz. Horregatik gero eta gehiago gara.

- **Zer urtetik zer urte arteko neskak daude bertan?**

Gaztetxoek 8 urte egin berri dituzte eta nagusienak 18-19 urte bitartean daude.

- **Zer alde ikusten duzu lehenengo nesken pilota eskolaren eta gaurkoen artean?**

2008an hasi zenetik hona ez dago alde handirik. Neska asko koadrilan etortzen dira. Neska bat sartzen bada, gero bere adineko guztiak apun-

tzen dira. Horrela funtzionatzen du honek. Uzten dute nean ere berdin: neskaren batek uzten badu, beste batzuk ere uzten dute.

- **Eta gaztetxoek kirolen artean, gaur egun nesken pilota eskola ohikoa da?**

Hasieran esanguratsua izan zen, baina gaur egun beste klub asko sortu direnez, ez dira beraiek palan aritzen diren bakarrik. Ez daukate *diferente* etiketa dagoeneko. Gero eta neska palista gehiago daude eta egoera normaltzen doa.

- **16 urte bete arte ez zinen hasi palarekin. Funtsezkoa da txikitatik palaz aritzera ohituta egotea?**

Ez dut uste. Ikusten dut esku pilotan jokatu dutenak gerora oso ondo maneiatzen direla palarekin. Normalean horrela izaten da, beraz, ez dut atzerapauso bezala hartzen. Noski hasieratik palaz aritu izan denak abantaila txoa izango du, baina gauza biak eginda ere, ez zaio txar to joango. Egia da palatik eskura zailagoa dela ohitzea, esku bat erabiltzeko ohitura dagoelako. Eskuz baina, bi eskuekin aritzera ohitzen zara eta gerora hori palarako probetxugarria da oso.



- **Nolakoa izan zen 2007ko abentura? Ordezko izate-tik munduko txapelduna izatera...**

Urte asko pasa dira. Joan ginen hautatze probetara eta han argi zeukaten joango ziren biak nortzuk izango ziren. Beste hirugarren bat aukeratu behar zuten hiru eramateko badaezpada. Azkenean talde batek huts egin zuen, Uruguayk uste dut. Ez ziren aurkeztu eta Euskal Herritik bi bikote eramateko erabakia hartu zu-

ten. Ni nintzen hirugarren hori eta laugarren bat ere hautatu zuten, horrela bi bikote osatzeko. Azkenean horrela lortu genuen irabazte txapelketa. Esperientzia polita izan zen hura.

- **2009 eta 2010ean berriz ere irabazi zenuen. Nola azal dakiok norbaiti munduko txapeldun izanda, kirol profesionaletik ezin dela bizi?**

Neska mutilen arteko aldea dago kirol denetan moduan. Gainera kirol minoritarioa da,

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com



IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

garrantzia handirik ez duena. Ez zen horrela izan behar, baina zoritxarrez horrela da. Ez dugu ezer egiterik.

- Beste herrialdeetako pilotarien aurka ibili zara. Nolakoa da neska pilotarien formazioa beste herrialdeetan?

Leku batzuetan bai, hemen gertatzen den modura, pauso handiak ematen ari dira eta ohikoagoa bihurtzen ari da nesken pilota, baina oraindik ere jauzi handia dago. Bada jendea 2007tik hona aurrerapauso itzela eman duena. Orain oso maila ona daukate. Hala ere, klub batzuetan ez zaie emakumeei jokatzeko uzten. Frontoi batzuetan jokatzeko ere ez. Orokorrean gu baino apur bat atzeratuagoak daude. Hemen ez zaio inori debekatzeko klub batean sartu edo frontoi batean aritzeko.

- Pilota beti lotu da gizonekin. Alda daiteke topiko hori?

Oraindik aldatzeko dago, enpresek mutilen aldeko apustua egiten dutelako. Gaur egun baina, gero eta neska gehiago ikusten da frontoietan, bai pilotan jokatzeko bai harmailan. Eta zentzu horretan normalizatu da jendearen artean. Azkenean dena da dirua eta tele-

bista. Eta horretan oraindik ez da egin behin-behineko apustua, nahiz eta egoerak apur bat hobera egin duen.

- Munduko pilota txapelketetan, gaur egun, nesken kategorian pala baino ez dago ofizialki? Barne organigramatik gauzak aldatzen joan beharko lirateke?

Neskentzako bakarrik pala dago bai. Gomazko pala ezker paretan, trinketea eta frontenisa. Hemen, Euskal Herrian, esku pilota egoteko aukera egon badago kopuru aldetik, narro eta xare eta beste modalitateetan ez dagoelako neska askorik. Munduko txapelketan baina ez dago momentuz esku pilotako modalitateerik. Beharbada beste herrialdeetan praktikatzen ez delako.

- Utopikoa ikusten duzu telebistan nesken pilota festival bat ematea?

Ematen dituzte baina orokorrean, nesken futbolearen bezala, oso gutxi. Athleticek partidak adibidez ikusten dira astero eta nesken taldearenak ez. Noizbehinka koparen bat jokatzeko badute agian bai, baina bestela ez. Gurekin berdin, egunen batean jokatu dugulako finalen bat edo partida garrantzitsu bat irten izan gara, baina ez da ohikoa. Azkenean komu-

nikabideek eta enpresek ez dute nesken kirolaren aldeko apusturik egiten.

- Oraindik badira trabak neska pilotari batentzat txapelketa eta dirusarie dagokienez?

Udal askok berdintasun plana daukate abian, horregatik festibaletan saiatzen dira nesken eta mutilen partidak jartzen eta berdin ordaintzen biei. Kasu askotan baina, badago oraindik ere alde ekonomiko handia.

- Beste kirolekin alderatuz, non kokatzen da pilota?

Futbolarekin alderatuz kirol minoritarioa dugu. Pala modalitatea izanda, ba gutxiago oraindik, eta gainera nesken kategorian izatea azken koska da. Horrek guztiak asko geldiarazten du berdintze prozesua eta oraindik ere pausu batzuk atzetik doa nesken pala.

- Mallabira itzuliz. Lehen frontoia kirol eskaintza urrienetakoa zen. Herri txiki izateak pilotari harrobi oparoa ekarri digu. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Mallabian batez ere esku pilotan zenbat pilotari egon dira eta gaur egun, hamar ere ez daude. Lehen frontoia beteta zegoen arratsaldero. Gaur egun umeak kirol

askotara apuntatzen dira eskaintza handia daukatelako. Aukera aniztasun horrek pilota apur bat kaltetzen du. Lehen aukera bakarra zenez, tiroi handiagoa zeukan. Orokorrean, Mallabiko nesken Lehen Hezkuntzako gehienak palan aritzen dira. Ezin gaitezke kexatu.

- Noizko hurrengo munduko txapelkun bat Mallabian?

Espero dut laster izatea momentu hori. Egoera ez dago ondo, baina aukerak hor daude. Jende asko dago ahalegin handia egiten eta ilusioa ere soberan dago ume askorengan. Palista izan nahi dutela diote eta hori seinale ona da beti.

- Bukatzeko, zelan animatuko zenituzke neska gazteak zein haien gurasoak pilota eskolan izena emateko?

Animatu daitezela esango nien. Kirol bat da orain arte ez dena asko ezagutu nesken artean, baina beste aukera bat ematen die gazteei kirola egin eta ondo pasatzeko. Eta bidaiatzeko gainera, nik bidaia mordo bat egin baititut palari esker. Beharbada pala ez da izango oso ezaguna, eta ez duzu diru askorik irabaziko, baina munduko leku desberdinak ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Paul Bustindui

oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

mari
asun



LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Emakumeen kontrako indarkeriari, mallabitarrok ez

“Indarkeriaren kontra/ egin nahi dugu borroka/ errespetuaz hitz egin eta errespetuz joka”. *Egun da Santi Mamiña* kantua melodiari berba horiek ipini eta azaroaren 25aren lema bihurtu dugu. Emakumeen kontrako indarkeria presente izan genuen, bere gainean hausnartzeko aukera izanez orduan egunean eta aurrekoetan ere. Jendetxo batu ginen frontoian: Udaleko ordezkariak, Nahikari talde feministako partaideak, herritarrak eta gu, eskolako Lehen Hezkuntzako ikasle guztiok. Euriak atertu ez bazuen ere, pozarren joan ginen, asmatutako gure bertsoak abesteko gogoz eta puxika more banarekin. Ikasle txikienei ere zeregina geratu zitzaizen eskolan:

jarrera egoki eta desegokien murala ideia onez beteta zeukaten etorri ginenerako. Puxika more guztiak, txiki eta nagusiok batera askatzekotan geratu ginen; une polita izan zen. Ilusioa egiten zuen gorantz igotzen ikusteak eta pena pixkat, euriagatik gora altxatu ezinik geratzen zirenek... batez ere gixajo horietako bat norberarena bazen!



Euskara eguna, ezin musikalago



Behin betiko, behin betiko... abestia lagun, abenduaren 3a benetan kantaria eta musikala izan zen. Egunak aurretik, erakusketa bat medio, Euskal Herriko musika-tresna tradizionalak eza-gutzeko, eta txalaparta eta panderoa jotzeko aukera izan genuen. Gainera Mallabiko 29 musikariren argazki eta informazioa bildu zen. Denetik zeuden: soinu-joleak, txistulariak, organista, rokerokak, abesbatzak, musika erakusleak, kantautoreak... Eguna bera ezin hobeto hasi genuen, guraso eta senide batzuk eskaintako trikiti doinuekin. Goizean zehar ipuinak, euskararen aldeko lelo eta konpromisoak, mural apainketa... Bazkaltzera ezin gusurago joan ginen, txistu eta atabalaren erritmora, biribilketa alaian. Arratsaldean tailerrak: kareta, makillajea eta txanoak. Etxera orduko, berriro zuzeneko musika: soinu txikiari eta panderoari, oraingoan alboka eta gitarra gehitu zitzaizkielako. Ez daukagu ahazteko: “Behin betiko... euskaraz ta kitto!”



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com



**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**



San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com



**LEIRE MAYORA
PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Iberikoetan
espezialistak



Denda
berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412



San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,
lana sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituenak.

HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



GABONETAKO E

Gemma *Moda*

Neska eta mutilentzako moda

BONO DENDA

Sexto Centenario, 11
ERMUA · 943 50 87 60



IZAGIRRE

BONO DENDA

Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia **943 170 277**

Calvin Klein
Punto Blanco
DIM
Armani
Playtex
Tommy Hilfiger
Freya...



F. PASCUAL Arane, 6
Tif.: 943 20 61 64
Fax: 943 20 85 43
20600 EIBAR (Guipúzcoa)

 **VIRGINIA PASCUAL**

Zubiaurre, 36-38 (bajo)
Tel y Fax: 943 17 68 28
48260 ERMUA (Vizcaya) **BONO DENDA**

MUEBLES DE COCINA INTERIORES

www.cocinaspascual.com

 **SAGARDUI** poltsak

Poltsak, karterak, gerrikoak, manikurak, maletak, osagarriak eta opariak.

BONO DENDA

943 170305 sagardui@sagardui.com
Zubiaurre 29 48260 Ermua (Bizkaia)

P AUTOSERVICIO DE CALZADO **PABLO** OINETAKO AUTOZERBITZUA

BONO DENDA

Sexto Centenario 19, ERMUA
943 17 54 09



 *El armario de Natalia*

BONO DENDA

ZUBIARRE 29 BEHEA
48260 ERMUA (BIZKAIA)
943 254 661



Ferreteria **ANBOTO** Burdindegia

Orain **KOTXEKO GILTZEN KOPIAK** ere egiten ditugu



BONO DENDA

943 17 69 76 ZUBIARRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
607 33 11 77 www.ferreteriaanboto.es


BONO DENDA *Marfil* **ILE-APAINDEGIA BAINO GEHIAGO**

Osasuna · Edertasuna · Estetika



Goienkale 12 behea - ERMUA · 943 17 28 09

EROSKETA GIDA



Denda berria!!

XIRIPOT
LIBURUDENDA
ZUBIAURRE, 15
ERMUA
TLF: 943 17 25 12

bizkaiko kultur txartela

etxedreams
COLCHONERIAS

Atsedenaldiraz hitz egingo dugu?

BONO DENDA

Zubiaurre 32
(Ermua)
943 177 041

EMAKUME ETA GIZONENTZAKO ZAPATAK

eua
CALZADOS

Orbe kardinalaren plaza 2 · Ermua · 943 17 XX XX

BONO DENDA

optika
irze

Probaleku 7 · Ermua
943 17 46 51

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Goienkale, 9 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

nane
moda

BONO DENDA

ONLY. JACK & JONES. MORGAN
MORGAN DE TOI

Santiago plazatxoa 3 · ERMUA · 943 17 34 66
www.facebook.com/nane.moda

Bitxi-denda
Erloju-denda

Senén
1978

Tailer propioa

Diseinua eta kalitateak bereizten gaituzte

BONO DENDA

San Pelayo zeharidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA. Webgunea: joyeriasenen.com · Emaila: joyeriasenen@gmail.com

DESCUBRE-TÉ

Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

BONO DENDA

Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

UDAL LIBURUTEGIAK ETA KIROLDEGIAK ORDUTEGIA ALDATU- KO DUTE GABONETAN

Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an liburutegia itxita egongo da, eta 5ean goizean bakarrik zabalduko du, 14:00ak arte. Abenduaren 26an eta 27an eta urtarrilaren 2an eta 3an goizeko 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 16:00etarik 20:00etara irekita egongo da. Urtarrilaren 7tik 21era, Liburutegia astelehenetik ostegunera 9:30etik 00:00ak arte irekiko da. Ostiraletan ohiko ordutegia mantenduko da (9:30etik 20:30era). Larunbat eta igandetan, berriz, 10:00etarik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara irekiko da.

Bestalde, abenduaren 24ean eta 31n, Udal Kiroldegiak zein Aritzmendi Kirol Guneak (frontoia eta padel pistak) 08:00ak eta 15:00ak arteko ordutegia izango dute. Fitness eta igerileku zerbitzuek itxiera ordutegia 14:30etara aurreratuko dute. Era berean, Betiondo Kirolguneak aipatu datetan soilik goizeko ordutegian zabalduko ditu ateak, 09:30etatik 13:00ak arte, zehazki. Gainontzeko eguntan, galdetu kiroldegian.

Ekitaldi arrakastatsuak egin ziren Euskararen Egunean

Euskal Birusa Elkartek, AEK-k eta Antxitxiketan begirale taldeak hainbat ekimen burutu zituzten Euskararen Nazioarteko Egunean, hilaren 3an. Euskararen erabilera aldarrikatzeko, kriseluen aiereratzea egin zen estreinakoz, eta arrakasta handia izan zuen antolatzaileen esanetan, "segituan saldu ziren

kri-
seilu

guztiak eta zerua argiz bete genuen". Horrez gain, Gazte Asanbladak antolatutako afariak ere lagun talde kopurutsua bildu zuen San Antonio ermitan -40 bat antolatzaileen arabera-: "Giro ederra sortu genuen eta datorren urtean ere berriro antolatzea gustatuko litzaiguke".



DBHko ikasleentzako koloniak antolatu ditu Antxitxiketanek

Herriko guraso talde baten eskaerari erantzuteko, DBHko ikasleei zuzendutako koloniak egingo ditu Antxitxiketan begirale taldeak Gabonetan. "Adin horretarako ez da ezer antolatzen, eta zerbait prestatzeko eskatu ziguten -diote Antxitxiketaneok-. Udalaren babesik ez dugun arren, egitaraua osatzea lortu dugu. Herrian burutuko dira ekintza guztiak, Sopuertara egingo dugun irteera izan ezik". 21 gaztetxok eman dute izena kolonia horietan, Ikastolakoak guzti-guztiak. Bestalde, Lehen Hezkuntzako ohiko koloniak egingo dituzte egun beretan eta ludoteka ere martxan ipintzeko lanean dihardute. "2 eta 5 urte bitarteko umetxoentzako ludoteka jarriko dugu martxan seguruenik, baina oraindik loka-la topatzen ari gara".

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es

**TRABAKU
GOIKO**

Taberna eta ostalua
leku paregabean

943 17 00 09



Sagarra
Gastro-Pub

Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

SPARA
rehabilitazio + sostenibilitate

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua - Bizkaia

Juan Carlos Colinari omenaldia egin zitzaion

Juan Carlos Colinaren lagunek eta antzerkiko kideek ekitaldi hunkigarria prestatu zuten haren omenez abenduaren 1ean. 19:30ean ekin zion Alain Kortazarrek aurkezpenari eta gogora ekarri zuen nola eza-gutu zuen Juan Carlos. Besteak beste, Juantxo Diez eta Marga Perezen etxean Colina bizi zen garai aipatu zuen. Argazki-proiekzioa egin zen ondoren, txalaparta eta Kubako congak uztarturik; jarraian, Izarraitz antzerki taldeak antzezlan txikia eskaini zuen, antzezlan ezberdinetako pertsonaiak nahasturik. EMOEko kideek testu bat irakurri zuten, eta Ermuko Kubako Komunitatekoek Juan Carlosen arrebak idatzitako gutuna irakurri zuten. “*Jendez gainezka zegoen antzokia, tartean egon ziren Mima -Juan Carlosen ama-, Xabi senarra, bere koadrila eta antzerkiko lagunak -dio Margak-. Oso hunkigarria izan zen, eta negar egin genuen, baina barre ere*”. Bertaratutakoei oroigarria banatu zitzaion, Juan Carlosek idatzitako testutxoarekin.



Aitor Hernández denboraldi bikaina egiten ari da

Abenduaren 8an, Beasaingo I. Ziklo Kross txapelketa burutu zen eta Aitor Hernández ermuarrak denboraldiko 11. garaipena lortu zuen, Javier Ruiz de Larrinaga txirrindulariarekin lehia bizian aritu eta gero. Abenduaren 13an egin zen XX. Valentzia Hiria Nazioarteko Ziklokrossean, berriz, 6. izan zen eta Kopa irabazi zuen elite mailan (Felipe Orts valentziarrak irabazi zuen lasterketa eta Kopa absolutua). “*Lasterketa garrantzitsuak ditugu egiteke, tartean Euskadiko txapelketa hilaren 27an, eta denboraldiko hilabeterik garrantzitsuenera heltzen ari gara* -dio Ermuko txirrindulariak-. *Urtarrilean, benetako aukerak izan nahi ditugu Espainiako txapelketan garaipena lortzeko*”.



MARTXAN DA GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Ermuko Udalak, Ermua Merkataritza Gunearen laguntzarekin, Gabonetako erakusle-ihio lehiaketa abiatu du. Kalitatea, argiztapena eta sormena baloratuko ditu besteak beste, eta irizpide horien arabera, bi sari banatuko ditu: 600€ eta 150 €tan baloratutako saltokia modernizatze-ko azterketa eta proiektuak, hurrenez hurren. Herritarrek ere bozkatu ahal izango dute www.ermua.es webgunean abenduaren 30 baino lehen, eta herritarrek aukeratutako saltokiak 200€tan baloratutako azterketa eta proiektua jasoko du. Bozka ematen duten guztien artean sari bat zozketatuko da.

FRONTENIS TXAPELKETA EGINGO DA MALLABIAN URTARRILEAN

A. D. Mallabia F.T. elkarteak Gabonetako frontenis txapelketa antolatu du. Bikoteka jokatu da, Mallabiko frontoian, urtarrilaren 9an, larunbata. Irabazleak 120€ eta kopa jasoko du eta bigarrenak 80€ eta kopa. Izena emateko. 669028718.

Heapaindegia

MT Heapaindegia
C/ Marqués de Valdespina nº 8 bajo
48260 Ermua (Bizkaia)
tlf. 943170474
Movil. 688819336
facebook. <https://www.facebook.com/heapaindegiamtyxeluqueria.mt>
Sylvia Gastón Izaquirre

T XALAPARTA ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

GINEKOLOGA

M^a Jose Ruiz de Porres dk.

- Bular-azterketa
- Minbizi miaketa prebentiboa
- Zitologia
- Bagina eta abdomen ekografia
- Mamografiak
- Bular-ekografia
- Nerabeei atentzioa
- Menopausiari atentzioa
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

PARTIKULAR ETA ASEGURU-ETXEAK
IMQ, Lagun Aro, ASISA, AEGON, Avant-Salud, ASEFA, DKV-Previsaa, Previsora Bilbaina, COSALUD, HNA

RADIOLOGIA MADINA

Toribio Etxebarria, 4-1 ezk. 20600 EIBAR
(2 de Mayo kalea zena) Untzaga Plazaren, Ego-Gaineko autobus geltokiaren eta Corte Inglesaren alboan
Telefonoa: 943 20 28 57

MARI FELI ARANBURU

- *Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?*

Zoriontsua, beti barrezka ibiltzen nintzen. Baserriko eta Mallabiko oroitzapen onak ditut, lehengusuekin jolasean.

- *Eta gaztaroa?*

Beti kalean lagunekin nengoen jolasean. Ermuko elizako portikoan hainbat ordu sartzen genituen, kontu-kontari eta barre mordoa eginez.

- *Zertan aldatu da gaur egunekoarekin alderatuta?*

Gu geu, arduratsuagoak ginen. Autonomoagoak.

- *Umetan zer izan nahi zenuen?*

Irakaslea. Beti ibiltzen nintzen gezurretako arieketak zuzentzen eta notak jartzen.

- *Zenbat urterekin hasi zinen lanean?*

Hamaika urte daramatzat matematika eta natur zientziak irakasten Mallabiko LHK ikastetxean. Gaztetan 18 urterekin hasi nintzen gaueskoletan euskarako klaseak ematen, haiek izan ziren nire lehenengo urratsak irakasle bezala. Bilbon ikasten nengoela ere, udaletxean euskarazko klaseak eman nituen. Ondoren informatikako ikastaro batzuk hartu, enpresa zientzien ikasketak bukatu eta informatikako eta ekonomiako irakaslea izan nintzen 18 urtez.

- *Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?*

Ikasleenganako egunero-ko tratua, batez ere zentro hauetan.



Ermuan jaio eta bizi den arren, Mallabiarekin harreman estua duen 51 urteko irakaslea. Gurasoak Mallabikoak, ama Aurtenetxekoa eta aita Etxebarrikoa. Gaur egun Mallabiko LHK zentroan ematen ditu eskolak.

- *Eta gutxien gustatzen zaizuna?*

Papeleoa eta burokraziako dokumentazioa. Nahiz eta garrantzitsua iruditu, asperitu egiten nau.

- *Nora joan nahiko zenuke?*

Edonora konpainia egokiarekin.

- *Mendira joateko konpainiarik onena?*

Nire aita, bera mendizalea baita eta ibiltzea gustuko duelako. Bere konpainia atsegin dut.

- *Beste kirol praktikatan duzu?*

Ez dut kirol askorik egiten, nahiko alferra naiz. Azken

bolada honetan bizikletaz hirian eta bide gorrietan ibili izan naiz eta asko disfrutatzen dut.

- *Kirolen baten jarraitzen duzu?*

Orain Eibar lehen mailan dagoela bazkide txartel bat libre dagoenean joaten naiz futbolera.

- *Bidaia bat nora?*

Eltxorik ez dagoen edozein lekutara.

- *Irakurtzea, zinea, irratia edo telebista, zein nahia go?*

Gaztetan zinera maiz joaten nintzen, betidanik gustatu baitzait zinea, baina

orain gutxitan joaten naiz. Etxean nagoenean irratia jartzen dut beti, telebista baino atseginagoa dut.

- *Jateko...*

Denetik, ardo ona kopan eta mahaia elegante jantzi-ta, niretzat postrea soberan dago.

- *Akats bat?*

Gehiegi hitz egitea komeni ez denean.

- *Bertute bat?*

Esku zabala izatea.

- *Zer irakatsi dizu bizitzak?*

Egunero irakasten dit zer-bait, horrela egunero ikasten segitzeko asmoarekin bizitzeko esperantzan nago.

- *Zer eskatzen diozu lagun bat?*

Lagun ona izatea.

- *Eguneko momentu bat...*

Mallabiko Taberna Berrian hartzen dudana potea lana bukatu ostean eguneko momentu lasaigarriena da niretzat.

- *Zerk ateratzen zaitu zure onetik?*

Errespetu eta edukazio faltak.

- *Zerk eragiten dizu barrea?*

Nire ikasleen okurrentziek batez ere.

- *Erraz haserretzen zara?*

Ez, nahiko lasaia naiz.

- *Zer miresten duzu gehien pertsona batengan?*

Pertsona xumeen handitasuna.

- *Zein albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea?*

Mallabian Gabonetako loteria tokatu dela.

Paul Bustindui

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
"LAN BABESERAKO
ORNDURA"

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154



Ainhoa Zuazua, sopranoa:

“Gaur egun kantari batek jakin behar du abesten, antzezten eta dantzatzen”

Ainhoa Zuazua duela hamarkada bat baino gehiago irten zen Ermutik kantua esparruan bere ibilbidea egiteko. Bide horrek Frantziara eraman zuen, eta bertan egiten du lan gehiena, nahiz eta bere ahotsak munduko txoko ugarietan izan duen oihartzuna. Abenduaren 11tik 19ra bitartean, *La corte del faraón* zarzuelaren 6 saio egin ditu Bilboko Arriaga Antzokian.

1 910ean estreinatu zen *La corte del faraón* eta hamaika bider antzeztu izan da orduetik, zentsurak baimena eman izan duen guztietan. “Bere garaian zarata asko sortu zuen, apur bat berdea delako -dio Ainhoa-. Hala ere, estreinatu zenean, Alfonso XIII.ari antzezpen pribatua egin zitzaion, Teatro Realen”. Raquel morroiaren rola egiten du Ainhoa zarzuela honetan, non abestiek eta antzerkiak bat egiten duten. “Gaur egun abeslariok antzerkilariak ere izan behar dugu. Lehen, opera edo zarzuelako kantariak hala-nolako antzezleak izaten ziren; orain gauzak aldatu dira, eta antzeztokira

igotzeko denetik jakin behar da: abesten, antzezten eta dantzatzen”, azaltzen du sopranoak.

Eta berak gustuko du hori guztiori. Izan ere, produkzio honetan parte hartzen duen bigarren aldia da, Arriagak 2012an ere ekoiztu baitzuen. “Lantalde handia da: 12 solista, koroa, Bizkaiko Orkestra Sinfonikoa eta talde tekniko kopurutsua, eta eurekin batera Oviedoko Campoamor antzerkian ere egon gara -kontatzen du-. Ez dakigu etorkizunean berriro egiteko aukera izango dugun”.

Ermutik Lyonera

Orleansen bizi da Ainhoa senarrarekin, Parisetik 100



kilometrora. Hala ere, Bilboko lana bukatutakoan, maletak hartu eta Lyonera joateko asmoa du. “Gizona lanean dago bertan -argitzen du-. Esparru berean egiten dugu lan, bera tronpetaria baita, eta orokorrean nahiko ondo moldatzen gara bata bestearen beharretara. Inoiz bat egin izan dugu lanean”.

Eta Lyonon ez du atsedenik hartuko, 2016ko lanak prestatzen hasita baitago. *La flauta mágica* abestuko du datorren urtean Beiruten Frantziako konpainia bate-

kin, operari buruzko ikuskitzuna prestatzen ari da, Lille Opera Antzokian kontzertua eskainiko du otsailean eta abenduan Mozarten *Bastien und Bastienne* operan parte hartuko du. Hori da momentuz lotuta duena. “Lehen aurretik jakiten genuen zertan ibiliko ginen, baina krisia nabaritzen da -azpimarratzen du-. Ekoizleek ez dakite proiektuak aurrera eramateko diru nahikoa izango duten eta azken momentuan hartzen dituzte erabakiak”.

Dorleta Vidal



Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Sarrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Enrailak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 **ERMUA**

Dendariak gara, eta bizilagunak ere

Ermuko Merkatarari eta Ostalarien Elkartean, 'Ermua Merkataritza Gunea'n, lan egiten dugu gure herriak merkataritza eta aisialdi bizia izateko, non gure bezeroek behar dituzten produktu eta nahi dituzten zerbitzuak aukeran dauden eta kalitatezkoak diren. Gainera, hainbat ekitaldi antolatzen ditugu urtean zehar, eta herrian burutzen diren ekintza garrantzitsu askotan parte hartzen dugu, Ermuko parte aktiboa garela.

Izan ere, gustatzen zaigu pentsatzea herria bizilagunen komunitate erraldoia dela, eta bertan etengabeko hartu-eman dagoela bizilagunen artean: Batzuk euren produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta aldi berean erosi edo parte hartzen dute gainontzeko bizilagunek eskaintzen duten horretan. Familia handi bat izango bagina bezala funtzionatzen dugu eta beste

inork eskaini ezin dezakeen hurbiltasuna eta tratua ematen dugu. Esaterako, soilik saltoki txiki batek utzi dezake arropa etxera eramaten probatzeko edo aldatu dezake bere ordutegia egun jakin batean zure beharretara egokitzeko.

Azkenaldian, hala ere, aurre egin behar izan diogu krisi ekonomikoari eta bi lehiakide indartsuei: saltoki handiei eta Internet bidezko merkataritzari. Esan beharrik ez dago ez dela erraza mamu horien kontra borrokatzea, baina iaz agertu ziren jada garai berrietara egokitzeko eta aurrera egiteko burutzen ari garen lanaren lehen kimuak. Horren adierazle da, besteak beste, gure herriko denda askok bere produktuak Internet bidez saltzen dituztela dagoeneko.

Begiratu dezagun ingurura eta kale biziak, distiratsuak, ikusiko ditugu gaur, hala nola erakusleho atseginak, zeinen beste aldean profesio-



Eneritz Ibarzabal

Ermuko Merkatarari eta Ostalarien Elkarteko lehendakaria

nal bikainak dauden, aldi berean gure bizilagunak direnak. Gure herrian erosita berau bizirik mantentzen dugu, gure inguruan lanpostuak sortzen ditugu, eta guztiontzako erakargarriak diren ekimenak abiatzea ahalbidetzen dugu.

Azkenik, herriko saltoki guztiei dei egin nahi diegu, elkarteko kide egin daitezten. Guztiok batzea da elkarteko kideen interes ekonomiko, sozial eta kulturalen alde egiteko modu eraginkorrena. Aldi berean, erakunde eta agintariekin bitartekari lanak egiten jarraituko dugu, ingurunean, saltokietan eta ostalaritzan hobekuntzak lortzeko.

“ Beste inork eskaini ezin dezakeen hurbiltasuna eta tratua ematen dugu ”

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

FOTOKOPIAK

KOLOREZKO FOTOKOPIAK

HANDIPENAK - TXIKIPENAK

PLANOAK - AZALEZTAPENAK

FAX PUBLIKOA

INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Abenduaren 4an
Zorionak Ane zure
9.urtebetetzean!!!
Musu handi bat
etxeko guztion
partez. Muakkk!



Abenduaren 31n
Zorionak Oier zure
3. urtebetetzean!
Musu handi-handi
bat familia osoaren
partez. Segi horrela
txapeladun!



Abenduaren 18an
Zorionak Olatz zure
bigarren urtebete-
tzean. Segi horrela.
Musu pottolo bat
Eider eta familia
guztiaren partez.



Abenduaren 20an
Zorionak, Julen,
zure 3. urtebetetze-
an. Asko maite zai-
tugu!! Amatxo eta
aitatxoren partez.



Urtarrilaren 2an
Zorionak Laida zure
lehenengo urtebete-
tzean. Musu handi
bat amatxu eta
aitatxuren partez.



Abenduaren 22an
Zorionak Irune!!!
Zurekin, guri bai
tokatu zitzaigula
loteria 22an!!
Jarraitu beti bezain
jator eta alai! Patxo
handi bat familia
osoaren partez.



Abenduaren 19an (Aiora, 2 urte) eta
abenduaren 2an (Maier, 4 urte)
Zorionak potxolis familia osoaren
partez eta Hamma, Beñat eta
Xubanen partez! Patxo potolo bat!



Abenduaren 30ean
Zorionak Aimar!!!
Musu handi bat
Maitane,aita eta
amaren partez.



Urtarrilak 3
Zorionak Magali!!
Musu handi bat
famiaren partez.



Urtarrilaren 10ean
Zorionak Xarles
lagun eta
famiakoaren partez.
Ondo pasau!



Urtarrilaren 8an
Zorionak Martin,
ama, aita eta
Iñanen partez. Musu
handi bat, asko
maite zaitugu!



Urtarrilaren 23an
Zorionak Aitorxu!!
Muxu handi bat eta
ondo-ondo pasa
eguna. Kriston mare-
jadi, yeeeahhhhh!!

Hurrengo zenbakirako azken eguna:
URTARRILAREN 18a




CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14



PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

hamburguesería
TITANIC



Pintxo dastaketa
poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Zure
publizitatea:

943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com

DROGETEN
DROGETEN
DROGETEN
aldizkarian

ITTURRI I URSO ITURRI




Montis DQ
Mouth

MALLABIA 1965

Argazki hau 1965ko irailaren 5koa da. Urte horretan, duela 50, jaso zen Iturzuri deitzen den iturria eta Oiz mendian dagoena. Berriztarrak ibili ziren lan horretan, baina erabili zituzten materialak, Zengoittetik gora jaso zituzten idi eta gurdiarekin. Lan horretan ibili zen argazkian idiarekin agertzen dan Aldape baserriko Felix Aldape. Patxi Aldape semeak ere egin omen zuen bidaiaren bat. Argazkian idiekin Felix Aldape agertzen da, atzean berriztarrak, tartean Torre anaiak eta baita Felixen semea, Patxi Aldape.

ZUZENKETA: Aurreko hilabeteko argazkia 1988koa da, urriaren 23koa hain zuzen. Erratuta, 1989. urtekoa zela ipini genuen.



ERMUA 1967



Sallabente eta Eitzaga auzoen artean San Pedro Jaietan eginiko sokatira desafioan atera zen argazki hau. Saio hura Sallabentek irabazi zuen eta talde hartako kideak ikusten dira argazki honetan.

Ezkerretik eskuinera: Alberto Lasuen, Pedro Erauskin, Alberto Barinaga "Kondia", Santos Urien "Urko", Jesus Iriondo "Apraiz", Pedro María Bergaretxe "Munikola" eta belaunikatuta dagoena Felipe Barrondo "Otxoa".

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA



arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75

banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Olentzerok ekartzen dizkigu urtero Gabonetako opariak. Beharbada ezingo ditu gure nahi guztiak bete, baina guztiahalduna balitz, zer eskatuko zenioke?

Aldiz, Olentzero bazina, zer gustatutako litzaizuke oparitzea? Nori?



Momentu honetan dirua da gehien behar dudana. Urte sabatiko hartu dut lan egin eta aurreztu ahal izateko, datorren urtean masterra egin nahi dudalako kanpogan. Baina... lortzen dudan diruaren arabera joan ahal izango naiz. Bestalde, aukera izango banu, nire amari opor ederrak oparitzea gustatuko litzaizuke.

Ander Prol, 22 urte




Dirua jasotzea gustatuko litzaizuke, datorren urtean Madrilera joan nahiko nukeelako. Ekonomia ikasten ari naiz oraindik, eta ikasketekin zerkusua duen masterra egiteko gogoia dut. Diru asko izango banu, oporrak edo erretiroa ordainduko nitzioke gurasoei.

Joana Díaz, 21 urte



Eskatuko nuke gazteentzako lana, bakea eta mendekotasunak dituzten pertsonak hobeto zaintzea. Nire familia pozik, lanarekin eta osasuntsu ikusten baditut, ez dut besterik behar. Beno, detailtxoren bat beti da ongietorria. Nik diru asko izango banu, ingurukoei lagunduko nieke, era desinteresatuan.

Justi Asensio, 59 urte



Bizitzako sasoi honetan zer eskatu dezaket, bada? Hipoteka kentzea gustatuko litzaizuke, nahiko berandu sinatu bainuen eta oraindik jarraitzen dut ordaintzen. Dirua izanez gero, 3 alaba eta 4 biloba ditut eta eurei nahi dutena oparituko nieke. GKEekin ere kolaboratuko nuke, nahiz eta ez naizen haiekin larregi fidatzen.

Victoriano Penis, 66 urte

Tasio eta Sabino



ZINEA*2tik 4ra**9tik 11ra**16tik 18ra**23tik 25era**30etik 2ra*

Ermua Antzokian.

Hainbat film eta ordutegi.

ZINE-KLUBA*Hilak 7**Hilak 14**Hilak 21**Hilak 28*

Ermua Antzokian.

Hainbat film.

*20:30ean.***UMEENTZAKO ZINEA***Hilak 3**Hilak 10**Hilak 17**Hilak 24**Hilak 31*

Ermua Antzokian.

Hainbat film.

*17:00etan***MUSIKA***Hilak 16:*

Blues kontzertua: Big mama Montse & Tófol Martínez Quartet.

20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

Sarrera: 8€

Hilak 22:

Sweet California.

22:15ean. Ermua

Antzokian. Sarrera: 15€

**ANTZERKIA***Hilak 15:*

"Amores minúsculos", Los zurdos Produksioen eskutik. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 12€

Hilak 29:

"Caperucita feroz", Glu Glu Produksioen eskutik. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10€

**UMEENTZAKO EKITALDIAK***Hilaren 4ra arte:*

Gabonetako Haur Parkea: hainbat ekitaldi.

11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik

20:00etara.

Sarrera: 2€

Hilak 5:

Errege Magoen kabalgata. 18:00etatik.

Sallabente ikastetxetik.

Hilak 30:

Haurrentzako antzerkia:

"Pintto Pintto", Anita

Maravillas Teatroaren

eskutik. 17:00etan.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 4€

ERAKUSKETAK*Hilaren 11tik 24ra:*

Margoa: Ane Barrainkuaren lanak.

Hilaren 25etik 7ra:

Argazkiak: Palestinako emakume errefuxiatuen bidaia luzea

Lobiano Kultur Gunean.

18:00etatik

20:00etara.

DANTZA*Hilak 8:*

Dantza proieksioa:

"El cascanueces".

Londreseko Royal Opera

Housetik. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 8€

BESTELAKOAK*Hilak 24:*

Extremadurako txarri

boda. Extremadurako

zentroan. 10:00etatik

aurrera.

Patxi López

TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINZA BEREZIA
OSTRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu
Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

MUSIKA
ESKOLA

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik

Ikastaroa urtarriletik ekainera

TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

	9:30-12:00	16:00-18:30	18:30-21:00
HABE 2.MAILA/B2	•	•	•
HABE 3.MAILA/C1	•		•

Klaseak astelehenetik ostegunera

HABEren AZTERKETAK MAIATZEAN

Langabetuek prezio erdia


ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua

Tel: 943170925

euskaltegia@udalermua.net

GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!



Dra. Olatz García Arregui
San Pelayo 5, 1. Ermua (Bizkaia)

943 17 04 04

Inplanteak - Aho kirurgia
Ortodontzia
Periodontzia
Zuriketak - Estetika
Odontologia orokorra
Protesiak

P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS
OCASO - DENTYRED - AZKARAN